

## Valentzieraren alde manifestazioa

**ESCOLA VALENCIANAK** egin du deialdia eta azaroaren 29an, Valentzia hiriburuan, manifestazioa egingo dute valentziera eskoletan irakasteko aldarria egiteko. Valentziar Herrialdeko irakaskuntza publikoko milaka irakasle, ikasle, guraso eta baita herritarrak ere biltzen ditu Escola Valencianak, eta hitz gutxitan esateko PPren esku dagoen Gobernuak valentzieraren (edo katalanaren) alde esan bai baina egiten ez duena exigitu nahi dute. Aldarria hobeto ulertzeko zehaztapen bat egingo dugu: azkeneko datuen arabera,

sare publikoan valentzieraz ikastea eskatu duten 90.000 haur murgiltze eredutik kanpo geratu dira, ikasle horien guztientzat eskaintzarik ez duelako Gobernuak. Hezkuntza Sailak valentziera modu mailakatuan sartzen duen ereduan matrikulatzera behartu ditu haurrok. Ereditu hori EAEko A ereduaren tankerakoa da sarri, onean B modukoa. Ikasleak valentzieraz ondo moldatzeko gai ez direla ateratzen dira eskolatik. Kontuan hartzen badugu gaztelaniaren eta valentzieraren arteko gertutasun linguistikoa sinesten zaila da... baina Escola Valencianako presidente Diego Gómezek berak esana da hori.

29ko manifestazioaz gain, 17tik 21era itxialdiak egingo dituzte eskoletan, Benidormen, Gandian, Castellón, Elxen...

## Euskarabideak diru gutxiago krisia dagoelako

**NAFARROAKO** Hezkuntza kontseilari Carlos Pérez Nievasek hala adierazi du, aurrekontua murriztu diotela Euskarabideari krisiagatik eta ez kudeaketa txarra egin delako. 2008rako aurreikusitako kopuruarekin alderatuta, aurrekontua %25 murriztuko dute datorren urterako. Hiru milioi euro jasoko ditu Xabier Azanzak zuzentzen duen erakundeak. Dena den, aurrekontuak behin betiko onartu arte balorazio sakonagorik eskainiko ez duela esan zuen Pérez Nievasek, hobetzeko aukerak daudelako.

## TALAIAN

### Enplegu erregulazioa kontrolatu

Egungo finantza-krisia sortu duen kapitalismoa laguntza publikoak (gure zergetatik) jasotzen ari da hondamendia saihesteko. Hori gutxi balitz, egoera aprobetxatu nahi du langileen kontra jotzeko, horrela etekinak pilatzen jarraitzearen. Orain, krisia industria, konsumoa eta zerbitzuak kaltetzen hasi da. Euskal Herrian enpleguaren etorkizunaren gaineko beldurra zabaltzen ari da. Beldurra hedatu da enpresa garrantzitsu batzuek, orain arte irabaziak izan dituztenek, Enplegu Erregulazioko Espedienteak (EEE) aurkeztu dituztelako. Beste batzuek egoera baliatu nahi dute hitzarmenak beherantz negoziatzeko. Bestalde, enpresa txiki eta ertain asko banku eta aurrezki kutxen kreditutik gabe geratzen ari dira. Aurrea egin ezinik dabilta eta gainezka egitear daude.

Egoera hori kontuan izanda, langile eta sindikatuek erne ibili behar dute, eta saihestu behar dute enpresaren bideragarritasuna bilatu beharrean, etekinak ateratzen jarraitzea helburu duen EEE oro. Era berean, langile eta sindikatuek xantaiei eta presioei aurre egiteko elkartu behar dute, irabaziak izan dituzten enpresetan hitzarmenak beherantz negoziatzea saihesteko.

Onartezina da koiuntura egoeran, hau da, finantza-krisian, enpresek neurri estrukturalak hartzea, hots, enplegua eta gizarte eta lan hobekuntzak murriztea. Hala ere, langile eta sindikatuen batasun horrek ez luke ezertarako balioko Iruñea eta Gasteizko Administrazioek EEEdak onartuko balituzkete, aurrez inolako kontrol sakonik egin gabe. EEE bat bera ere ez litzateke onartua izan behar, horiek aurkeztu dituen enpresak azken urteotan irabaziak izan baditu.

Juan Mari Arregi

## BAHEA

Jesus Mari Mendizabalek *Deian* esanak euskalgintzan edota euskal literaturan hautsi beharko litzatekeen mitorik ba ote dagoen galdetutakoan: “Euskara errazarena eta zailarena, bat. Orixeren garaitik dator eztabaida, pentsa! Euskara ikasten arinaiztarrekin konparatzen ditut nik euskaraz irakurtzen arinaiztarrak. Euskal liburu zail gutxi dago; euskaldun (analfabeto?) zaildu gabe asko. Ogi gogorrari hagin zorrotzak: ahiak eta pureak janez beti, apenas den umea lerden haziko eta burujabe heziko”.

Josu Zabaletak *Noticias de Gipuzkoan* esanak: “Uste dut hori [Paul Austerren eta Doris Lessing-en liburuak euskaratu berri dira] anekdota baino ez dela. Nolabait ere, Paul Austerrek normalizazio bide bat ireki du, baina oraingoz guztiz anekdotikoa da. Itzultzaile onak badaude eta itzulpenak sortzen ikargarriko aurrerakuntza egin da. Itzulpen horien eraginari dagokionez beste sortzaile batzuen artean zabaltzen ari da, baina oraindik ez da zabaltzen jende artean. Itzulpenaren kontsumoa normalizatzeko denbora asko falta dela uste dut”.

XABIER LETONA

MALTZAGATIK

## Oroituko da Obama 1992ko Rio de Janeiroko gailurrak?

**AITORTU BEHAR DUT,** niri kostatzen zait sinestea Barak Obamak mundura aldaketa handiak ekarriko dituenik. Euroeszeptikoetakoa naiz. Aldaketak izango direla, oster, sinesgarriagoa da, azken zortzi urteetan errepublikarrek hain eraman dute muturrera egoera... Bill Clintonen garaira itzultzea ere aldaketa handia dela AEBetan. Bestetik, eta mesfidantzarako arrazoirik falta ez bada ere, ezin da garrantzirik gabekotzat jo, azalez behintzat, minoria bateko kide dena lehendakaritzara iristearena; are gehiago AEBetako populazio sektore ahulenean aupatu dutenean: emakumeek, beltzek, hispanoek...

Datuetatik dator eszeptizismoa: 1929az geroztik munduko ekonomiak duen krisirik handienaren epizentroan eseriko da Obama, AEBetako biztanleriaren %1ek –hiru milioi pertsonen gutxi gorabehera– pilotzen du herrialdeko errentaren %50, 45 milioi pertsonatik gora txirotak dira; inoizko zor publikorik handiena du zain Etxe Zurian (500.000 milioi dolar); bi gerra jaso ditu oinordekotzan...

**BERLINGO HARRESIAREN** erorketak mundu mailan emandako nagusitasun erabatekoa gainbeheran doa, eta akaso pentsatu baino azkarrago. Munduko diru trukeetan



dolarrak zuen garrantzia asko jaitsi da azken hamar urteetan: 2000. urtean munduko banku zentralen dibisetatik %71,2 dolarrak ziren, 2008aren hasieran %62,4. Internet: duela hamar urte mundu osoko trafikoa erdia estatubatuarrena zen; gaur egun, %25ekoa da, txinatarren atzetik dira jada.

Gorotzak barra-barra pilotzen ari zaizkio oraindik orain munduko ekonomia lokomotora lanak egiten dituenari. Atera kontuak besteontzat ere: munduan 230 milioi pertsona ei daude langabezian, eta 2009an beste 20 izango ei dira. Hori datu ofizialetan. Horren guztiaren bideratzeko bilduko da asteburuan G-20ko batzarra –azkenean Zapatero barne–, George W. Bush-ek gidatuko duen azkena. Finantza merkatuen kontro-

lerako neurriak ei dira lehentasunezkoak, datorren astelehenean ez, baina datozen hilabeteetan ikusiko dira neurri batzuk... Baina Sarkozyren kapitalismoaren birfundazioa nekez joango da askoz harago.

**OBAMA FENOMENOAK** mundu mailan sortu duen ilusioa ulertzeko da, eta ezkortasunerako datuak ugari badi-ra ere, egia da esperantzarako izpi berria ere sortu dela eta bestelako mundua bultzatzen dutenek baliatu beharko luketela ideia zabal horren inguruan jende gehiago eta hobeto antolatzeke. Batez ere, bestelako mundua Etxe Zurian baino, norberaren etxean hasten delako, lantokian, auzoan, eskolan... Ekonomia solidariotik, zaborren kudeatzetik, kontsumo ohituretatik, informazio ahalegi- netik, adierazpen askatasunetik... 1992ko Rio de Janeiroko Ingurumenaren Gailurrean –Kyotoren ama- pontekoa– orduko AEBetako lehen- dakari Bush aitak, gailurraren eskakizun nagusiei –gas isurketen kontrola– ezetza ematean tinko adierazi zuen gakoaren hiltzea non zegoen: “Estatubatuarren bizimodu eredu ez da negoziagai”. Bush semeak zintzo heldu zion aitak esan- dakoari eta munduak epelak hartu ditu. Europarrok ba ote gara gure bizimodua negoziatzeko gai?

**Txapela**  
buruan  
to ibili munduan

Narrika, 18. Donostia  
telf. 943428299 [www.txapelaburuan.com](http://www.txapelaburuan.com)

